

EUSKAL AEKO KANPO-MERKATARITZAREN ESTATISTIKAK (KAMEE), 2011KO 3. HIRUHILEKOA

Euskal AEko esportazioak % 25,5 hazi dira 2011ko hirugarren hiruhilekoan

Inportazioek % 11,5 egin dute gora denboraldi berean

Euskal AEko esportazioak: EUSTATEk emandako datuen arabera, esportazioek % 25,5eko hazkunde nominala izan dute 2011ko hirugarren hiruhilekoan. Urte honetan 5.263 milioi euroraino hazi dira, aurreko urtean 4.195 milioi baino zertxobait gehiago izan ziren. Esportazioek hirugarren hiruhilekoan izan duten hazkundeak % 18,4an utzi du 2011ko lehenengo bederatzi hilabeteetan pilatutako tasa.

Euskal AEko inportazioak: urte honetako hirugarren hiruhilekoan, % 11,5eko hazkunde nominala izan dute inportazioek, eta 4.148 milioi eurora iritsi dira. Inportazio ez-energetikoak bakarrik kontuan hartuta, aztertutako aldian hazkunde handiagoa izan dute (% 12,3), 2.685 milioi euroko balioarekin. Inportazioen urteko lehenengo bederatzi hilabeteetako tasa metatua % 17,6raino hazi da, aurreko urteko aldi beraren aldean, eta inportazio ez-energetikoen % 14,3raino.


Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2010-2011, Hirugarren hiruhilekoa. Milaka eurotan

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Uztaila-Iraila			Uztaila-Iraila		
	2010	2011	Δ %	2010	2011	Δ %
EUSKAL AE						
GUZTIRA	4.194.671	5.262.881	25,5	3.721.289	4.147.631	11,5
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	472.200	524.577	11,1	1.330.491	1.462.153	9,9
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	3.722.471	4.738.304	27,3	2.390.798	2.685.479	12,3
ARABA / ÁLAVA						
GUZTIRA	998.698	1.475.719	47,8	522.655	665.578	27,3
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	817	527	-35,5	4.504	5.756	27,8
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	997.881	1.475.192	47,8	518.151	659.823	27,3
BIZKAIA						
GUZTIRA	1.804.111	2.169.542	20,3	2.449.001	2.690.726	9,9
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	463.123	515.685	11,3	1.313.674	1.446.510	10,1
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.340.988	1.653.857	23,3	1.135.326	1.244.215	9,6
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.391.862	1.617.620	16,2	749.633	791.328	5,6
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	8.261	8.365	1,3	12.313	9.887	-19,7
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.383.601	1.609.255	16,3	737.320	781.441	6,0

Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo-merkataritzako estatistikak

Esportazioen kopuruari inportazioena kenduta, **saldo** garbia positiboa izan da hirugarren hiruhilekoan; ondorioz, 1.115 milioi euroko merkataritza **superabita** izan da eta esportazioen estaldura-tasa inportazioen aldean % 126,9koa izan da. Baina inportatu eta esportatu diren produktu energetikoak alde batera utzita, **merkataritzako saldo ez-energetikoak** 2.053 milioiko superabita izan du (2010. urteko hirugarren hiruhilekoan baino 721 milioi gehiago). Aztertutako aldian, estaldura-tasa ez-energetikoa % 155,7koa izan zen 2010ean eta % 176,4koa izan da 2011n.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. Urte arteko hazkunde tasak



Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo-merkataritzako estatistikak

Europar Batasunerako ziren 2011ko hirugarren hiruhilekoko **esportazioak** % 36,4 hazi dira, 2010eko aldi beraren aldean. Bolumena eta urteko hazkunde aintzat hartuta, esportazio horien artean honakoak azpimarratu behar dira: Frantziarakoak (% 20,7), Alemaniakoak (% 31), Italiakoak (% 47,1), Belgikakoak (% 89,6) eta Erresuma Baturakoak (% 18,6). Gainera, Europar Batasuneko herrialde guztiekin hazkunde tasa positiboak eman dira. EB-27tik kanpo, nabarmentzekoa dira hurrengo herrialdeetarako esportazioen hazkundeak: Singapur (% 250,9), Iran (% 243,4) eta Norvegia (% 149,5).

Europar Batasunetik etorritako **inportazioak** % 11,5 gehitu dira; horien artean, bolumena eta urte arteko hazkunde oinarritzat hartuta, inportazio hauek dira aipatzekoak: Alemaniakoak (% 22,6), Frantziakoak (% 24), Italiakoak (% 9,5) eta Belgikakoak (% 32,7). Erresuma Batutik etorritako inportazioek, aldiz, behera egin dute (-% 47,2). Munduko gainerako herrialdeei dagokienez, Singapurretik (% 608,8), Indiatik (% 377,1) eta Ameriketako Estatu Batuetatik (% 111,9) etorritako inportazioen hazkundeak dira azpimarragarrienak.


Muga-zergak aztertuta, eta esportazioei dagokienez, *Garraio-materiala* izeneko atala nabarmendu behar da; atal hau garrantzitsuenen artean dinamikoena izan da, % 36ko hazkunde izan du eta hiruhileko horretako esportazio guztien % 21 hartu du. Gainerako atal garrantzitsuek ehuneko apalagoak izan dituzte: *Metalak eta beren manufakturak* % 5,7 hazi dira eta *Material elektrikoa* % 5,1. Horrez gain, *Plastikoak eta kautxuak* (% 198,8) izan duten hazkunde handia azpimarratu behar da, hiruhileko horretan esportatu den guztiaren % 16,6 hartu du eta.

Inportazioei dagokienez, *Produktu mineralak* azpimarratu behar dira: % 9,9 hazi dira, eta gure inportazioen % 35 hartu dute. Hazkunde garrantzitsuak izan dira *Plastikoak eta kautxua* (% 70,2) eta *Produktu kimikoak* (% 66,0) ataletan ere. Hazkunde apalagoak gertatu dira, inportazio garrantzitsuenen artean, *Metalak eta beren manufakturak* (% 2,1eko hazkunde) eta *Material elektrikoa* (% 4,0koa) ataletan.

Esportazioek **Arabian** izan dute hazkunderik handiena. Lurralde horretako hazkundera % 47,8koa izan da 2011ko hirugarren hiruhilekoan, eta batez ere muga-zergen atal garrantzitsuenetan gertatu da: *Garraio-materiala* (% 47,2), *Metalak eta beren manufakturak* (% 25) eta *Plastikoak eta kautxua* (% 243,5); baina, beste aldean, *Material elektrikokoek* pixka bat behera egin dute (-% 0,6). Arabako inportazioek % 27,3 egin dute gora, eta horien artean garrantzitsuena *Metalen eta beren manufakturen* hazkundera izan da (% 30,1).

Euskal AEko kanpo-merkataritza. Hileko datuak (Joera)

Miloi EURO



Iturria: Eustat. KAMEE: Kanpo merkataritzaren estatistika

Bizkaiko esportazioak % 20,3 hazi dira, aurreko urteko aldi beraren aldean. Lurralde honetan esportazioek izan duten hazkunde hori, batez ere *Produktu mineralak* (% 11,3) eta *Plastikoak eta kautxua* (% 223,4) ataletako salmenten guztirako bolumenak izandako portaera onaren eraginez gertatu dira. *Metalek eta beren manufakturek*, aldiz, % 7,8 egin dute behera. Guztira, hiru atal horiek lurraldeko esportazio guztien % 68 hartu dute. Bizkaiko inportazioek % 9,9 egin dute gora, batez ere *Produktu mineralen* (% 10,1) eta *Plastikoen eta kautxuaren* (% 113,2) inportazioen hazkundeak eraginda. Dena den, *Metalek eta beren manufakturek* % 4,2 egin dute behera.

Gipuzkoako esportazioek % 16,2 egin dute gora urte honetako hirugarren hiruhilekoan, hiru lurraldeotako hazkunderik txikiena. *Garraio-materialak* (% 43,8), *Metalak eta beren manufakturak* (% 13,9) eta *Material elektrikoak* (% 5) ataletako esportazioak izan dira hiruhileko honetako hazkunderari gehien lagundu diotenak. Gipuzkoako inportazioek % 5,6 egin dute gora. Inportatzen diren bi atal garrantzitsuenetan, *Material elektrikoak* % 9,7 hazi dira eta *Metalak eta beren manufakturak*, aldiz, % 3,5 jaitsi dira.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.: +34-945-01 75 13 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gaineko prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gaineko datu-bankua